


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko urriaren 25a

*



Frantziskotarren Etxea, denon etxea Donapaleun

■ Urduritasunak eta presak ez dute lekurik Donapaleuko Frantziskotarren Etxean. Atea jotzen duen edonor hartzeko bokazio argi eta garbia duen eremu baketsua da komentua. 1992. urtera arte, 50 urtez, ostatua izan dute bertan frantziskotarrek inguruko herrietatik Donapaleura ikastera etortzen ziren haurrentzat. Egun,

Donapaleuko monjeek beste hamar lagunekin batera sortu Zabalik elkartearen bidez, ekimen berri bat jarri dute abian. «Guregana hurbiltzen den edonori zabaldu nahi dizkiogu atea», azaldu digu Joxe Iturriotz aita gipuzkoarrak. Fededun eta fedegabeen atsedenerako bilgune baketsu bilakatu da Frantziskotarren Etxea. ■

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Eta iritsi zen harropuzkeriaren garaia, ondokoak zapalduz igotzekoa, merezimendurik gabe norberak bere burua laudatzekoa, izerdiz landutako merituak biltzeagatik baino halako ideologia garailearen partaide izateagatik lantegian tokia lortu ahal izatekoa.

Eta hori itxura onez estali zuten, gaizki egina dagoenaren akatsa besteei, ahal izatekotan azpikoei, leporatuz.

Eta irripa faltsuez sinetsarazi nahi izan zidaten beren jokabidea egokiena zela.

Eta niri sinesmena ez baizik eta beselakorik, nazka batzuetan, pena besheetan, sortu zitzaidan banean haiei begira, ez baitut sekulan hipokresia ja-

san eta are gutxiago modu horretan jokatzeko jakin.

Eta goiko mandatarien aurrean itxuroroso, dotore jarriak, belarritik belarrira irri zabal bezain gezurtiak ahoan, hitz eder txalogarriak asmatzen ikusi nituen aldiro, parregurea eman zidan, goreneko mailan botereen iraupena hain motza izanik, jakin banekielako sarritan ibili behar izaten zutela txandako agintari eta buruzagiak bereganatzeko saiakeran.

Eta amorrua sortu zidan, ordea, haien ustez azpikoak zirenak zeinen erraz mespretxatzen zituzten ikusteak.

Eta laister ohartu nintzen ere haiengan ez zegoela hurkoarekiko sentimendu handirik, beren burua gainerakoen

goitik altxaturik zutela eta bihotzgabekten modura zihardutela gehienetan.

Eta haiekin batere antzik ez zutenen artean bilatu nituen nire lagunak.

Eta adiskidantza eta maitasunetan murgiltzeak zoriona ekarri zidan.

Eta soilik haien buruaren adoratzaile gisara bizitzea aukeratu zutenak goiz ala berandu diru eta boterearen bakardadean egotera kondenaturik zeudela aurrikusi nuen.

Eta orduantxe errukigarriak zirela jakin eta nengoen tokian egoteagatik eta gertu nituen gizakiak edukitzeagatik biziki poztu eta eskerrak eman nizkien bidea urratzen lagundu ninduten izarrei. X

Harropuzkeriaren garaia

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Gares: Extremoduro taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 25, Funda Mental aretoan, gaueko hamaiketatik aurrera. Sarrerak 1.500 pezetan (60 libera) izanen dira salgai.

Iruñea: Jean Michel Bedaxagarrrek eta Maddi Oihenartek kontzertua eskainiko dute heldu den ostegunean, hilak 31, Erraldoien Txokoan, ilunabarreko zortzietatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Beatriz Villegasen *Reminiscencias lorquianas* erakusketa ikusgai izanen da herriko Kultur Etxean azaroaren hirura arte.

LEHIAKETAK

Altsasu: Bertso Paper Lehiaketara deitu du Kima taldeak. Bi maila izanen dira: euskal herritarrena, batetik, eta Sakanako biztanleena, bestetik. Sail bateko zein besteko irabazleek 35.000 pezeta jasoko dituzte. Gaia librea da, eta idazkiak azaroaren zortzia baino lehen aurkeztu behar dira Altsasuko udaletxean.

Iruñea: Narrazio erotiko laburren lehiaketara deitu du Sex Haizegoa dendak. Lanek gutxienez 20 folio eta gehienez 50 eduki beharko dituzte, eta urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Sex Haizegoan bertan (Barañain etorbidea, 29). Idazlanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke. Irabazleek (euskaraz zein erdaraz) 75.000 pezeta (3.000 libera) patrikaratu dituzte.

Barañain: VIII. Argazki Lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Sailak. Abenduaren 9a baino lehenago bidali behar dira lanak parte hartu ahal izateko. Gaia librea da, eta sari banaketa abenduaren 26an izanen da.

IKASTAROAK

Iruñea: Aisialdi begiraleentzako ikastaroa antolatu du Urtxintxa aisialdi eskolak, Nafarroako Kirol eta Gaztedi institutuaren laguntzaz. Ikastaroa azaroaren bederatzian hasi eta apirilaren 26an amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko dei 21 14 78 telefonora.

Zizur Nagusia: Gazteentzako herri dantza ikastaroa izanen da herriko kultur etxean. Goizez edota arratsaldez aritzeko aukera izanen da. Hilabete bakoitzeko 1.000 pezeta (40 libera) ordaindu beharko dira.

HITZALDIAK

Iruñea: Maialen Lujanbio eta Jon Maiak bertsojaritza forma berrien inguruko hitzaldia eskainiko dute hilaren 29an, eguerdiko hamabietan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Halaber, egun berean, baina ilunabarreko zortzietan, bertso saioa izanen da Erraldoien Txokoan (Descalzos kalea). Horretan Leire Bilbao, Oskar Estanga, Xabier Silveira, Maialen Lujanbio eta Jon Maia ariko dira kantari.

nafarkronika

Alberto Barandiaran

Datozenak

Durango datorkigu atzera uste baino lehenago, eta literaturzaleak esperoan, zer irakurriko. Nafarroatik uzta joria, lazko uholdearen ondotik hemen sortutako beste hiru liburu kaleratuko direlako aurten, hirurak zer esanik emango dutenak gainera.

Juanjo Olasagarrarena da lehendabizikoa. Arbizuarraren poesia liburu berri bat kaleratuko du Susa argitaletxeak luze baino lehen, duela bost urte ateratako *Gaupasak* harekin alderatuta desberdina, berriagoa eta pertsonalagoa esan daiteke. 80ko urteetako gazteria da poema liburuaren protagonista, *Bizi puskak* izena eramango duen liburuaren ardatza. Galdera-erantzunen eta elkarren arteko solasen bidez herri bateko pertsonaiek aletu egiten dituzte ingurua markatu duten egoerak, gertakariak eta bizipenak, koadroa osatu arte. Edgar Lee Master idazlearen *Spoon River* nobelan erabilitako teknikaz baliatuta, politika, sexua, heldutasuna, filosofia, droga kontuak, dena nahasirik azaldu da Arbizukoa izan daitekeen giro horren mapari iltzeak jartzeko.

Beste bi liburuak puxka bat berandutuko dira oraindik, baina Durangorako kalean eta aurkeztuta egongo dira, ez da dudarik. Aingeru

Epaltzaren laugarren nobelak piztuko du jakinmina. *Tigre ehiza* izango du izena, eta *Ur uherrak* lanak jaso zituen kritika oparoen ondotik, liburu ona izango da iruindarrarena, izango denez. 36ko gerrak utziriko ondorioetan dago oinarrituta, eta erbestera joan behar izan zuten aita eta semeak ditu protagonista. Hizkuntz erregistro bere lanean ez oso ohikoak erabili ditu gainera idazleak, bizkaiera eta lapurtera baliatu dituelako liburuaren zenbait pasartetan.

Patxi Zabaletak ere eutsi dio bere etengabeko produkzioari, eta aurten kalean edukiko du *Ukoreka*-rekin hasi eta *Badena dena da* lanarekin jarraitu zuen trilogiaren hirugarrena. *Arian ari* izango du izena eta, aurreko biak bezala, Txalaparta Tafallako argitaletxeak jarri du kalean. Talde honen barruan sartu ere sartu liteke Itxaro Bordak plazaratuko duen hurrengo nobela, Amaia Ezpeldoi detektibearekin egindako hirugarrena. Baita Patziku Perurenak kaleratutako saio liburu ere, Leitzako ahozko tradizioa jasotzeko egin duen lan itzela.

Uztak, bistan denez, ez du etenik. Igaro dira idortekak, eta orain, produkzio etengabeak arrakasta eta segida izan dezan, gauza bakarra dugu falta: izen berriak, gazteendako lehiaketetan trebatzen hasiak diren horietakoak.



asteko pertsonaiak



Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpikua

■ Ricardo Blazquez Bilboko artzapezpikuak Eliza ETaren eta Gobernuaren arteko bitartekaritzarako eskaini eta berehala, Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpikuak Fedetik eskutitz berria igorri du hedabideetara. Berak ere *euskal gatazka* izan du mintzagai, hain zuzen ere Ortega Lararen bahiketa. Idazkian gogor salatzen du espetxe funtzionarioaren bahiketa, «guztiori egiten diguten tortura» dela azalduz, eta ETako presoek eskubide zibilen aldeko borroka zilegia «bekatu larria» den ekintza horrekin ezin dela nahasi gehitzen du. Bitartekaritza, ordea, ez du aipatu ere egiten. Jainkoaren bideak ezin asmatuzkoak dira.



Rafael Benitez Osasunako entrenatzailea

■ Ez dago batere argi Rafael Benitez Osasunako entrenatzaileak Gaborzharreko mahatsak Iruñean jaterik izango duen ala ez. Itxuraz, Bigarren Mailako aurrekonturik haundienetako bat duen Osasunaren helburua aurtengo denboraldian Lehen Mailara itzultzea zen. Egun, baina, Bigarren B Mailara zuzenean jaisteko postuetan da Gaztelu plazako taldea. Zaleak urduri jarri dira, baita taldeko agintariak ere, eta guztiak Benitezi begira daude. Zuzendaritza taldeak jokalaria nafarrekin entrenatzaileari buruz hitz egin zuen aste honen hasieran. Harrobikook madrildarraren alde egin zuten, eta horri esker oraingoz Iruñean segituko du Benitezek. Noiz arte? Batek daki.

ahaztu gabe!



IBILALDIA

Nafarroa Kirol Elkarteak Gazteentzako I. Ibilaldia Erreniegara antolatu du heldu den iganderako, hilak 27. Hamar urtetik 15era bitarteko gazte guztiak joan ahal izanen dira Erreniegara. Ibilbidea Zizur Txikian hasiko da, eta Zarikiegiraino Done Jakue bidea segituko du, horretan barna marrazturik dauden arrasto horiek jarraiki. Gero, Erreniegara igoko da. Bertan hurrek hamaikeketako ederra hartzeko aukera izanen dute. Horren gibeletik, ibilbideak behera egiten du, Zizur Txikira itzultzeko. Ibilbidean barna bost kontrol gune izanen dira, eta derrigorrezkoa izanen da guztietatik pasatzea. Partehartzaileek lau lagunez osatutako taldeetan egiten dute ibilbide osoa. Ibilaldiko antolatzaileek ez dute sailkapenik egiten. Horren ordez, kementa sarituko dute. Izena ematea musutruk izanen da, Nafarroa Kirol Elkartearen egoitzan (Jarauta kalea 78), edota 22 43 24 eta 22 98 20 telefonotan.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenerdik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Tafalla

Herriko feriak eginen dituzte gaur

Gaurko azoka ezezik, igandean Azienda eta Elikagaien Erakusketa ere eginen dute

Tafallako feriak eginen dituzte gaur herrian. Zaldi-azienda izanen da nagusi, Burguete arrazako moxala preziatuak tartean. Igandeko erakusketan, berriz, azienda eta artisautza izanen dira protagonistak. Nafarroako produktuak dastatzeko aukera ezezik, lehiaketak ere izanen dira.

Erredakzioa / Iruñea

URRIKO azokak Tafallara iritsiko dira asteburuarekin batera. Ohiturak eta azken urteetako ekimen berriak bat eginen dute herri honetan. Hasteko, gaur urriko azoka eginen dute Tafallan, eta igandean, berriz, Nafarroako Azienda eta Elikagaien Erakusketa.

Gaur Tafallan eginen duten azokari dagokionez, Euskal Herri osoko eta kanpoko abeltzain eta tratalari andana bilduko da bertan. Urtero legez, zaldi-azienda izanen da egun honetan protagonista garrantzitsua. Tartean izanen dira, besteak beste, Burguete arrazako moxal txiki preziatuak.

Erakusketari dagokionez, bestalde, azienda eta artisautza izanen dira nagusi. Aziendaren baitan, Nafarroako ardi-aziendaren erakusketa izanen da lehenik eta behin. Gainera, Nafarroako rasa arrazako bildotsen hirugarren lehiaketa morfologikoa eginen dute; sei eta hamabi hilabete bitarteko abereentzat. Halaber, arraza eta adin bereko hazitarako ardien hirugarren lehiaketa morfologikoa egingo du-



Urtero legez, ganadu feria eginen dute gaur Tafallako herritarrek.

ARTXIBOKOA

te. Zerri-azienda eta untxiak ere ikusi ahal izanen dira Tafallan igandean.

Elikagaien erakusketari dagokionez, Nafarroako artisauek herrialdeko produktuak erakutsiko dituzte Tafallan, hala nola gazta, pateak, patxarana, mamia, eztiak, pastak eta abar. Produktu hauek dastatu ezezik, erosi ere egin ahal izanen dituzte bisitariek igande osoan zehar.

Azokan, gainera, hainbat erakunde eta elkartetako kideek euren txokoa izanen dute: Nafarroako Abeltzaintzaren Kudea-

ketarako Institutu Teknikoak, Tafallako Udalak, Nafarroako Gobernuako Nekazaritza Departamentuak eta herrialdeko jatorri izenek, besteak beste. Nafarroa eta Errioxako jatorri izena duten ardoen erakusketa ere izanen da ikusgai. Halaber, EHNE eta UAGN sindikatuak eta Bio Lur Nafarroa elkarteak ere izanen dira Tafallan.

Igandeko egitaraua goizeko hamaiketan hasiko da. Ordu horretan zabalduko dute Azienda eta Elikagaien Erakusketa. Ordu erdi geroago, zaldi kalderetea

dastatu ahal izanen dute Tafallako herritarrek, baita Nafarroako ardoa ere. Ordu horretan ere, gazta txapelketa hasiko da.

Eguerdian, artzain txakurren erakustaldia eginen dute, eta hamabi eta erdietan zaldiak nola ferratzen diren erakutsiko dute. Arratsaldeko ordu batean Jota Eskolako kideek euren emanaldia eskainiko dute. Ordu bietan, berriz, lehiaketetako sariak banatuko dituzte. Igandeko Azienda eta Elikagaien Erakusketa arratsaldeko seietan itxiko dute. X

Bera

Lurraren Eguna ospatuko dute igandean Altzaten

Hamargarren ekitaldia izanen da aurtengoa

Jon Abril / Bera

URRIKO laugarren igandean ospatzen da urtero Lurraren Eguna Beran. Euskal Herriko produktuen eta artisautzaren erakusgarri da egun hau. Goiz-goizetik, Berako baserritarrek euren barazki eta fruituak erakusgai jarriko dituzte, bildu berri duten uzta erakutsiz. Gazta lehiaketa ere goizeko lehen orduetan egingo da. Irabazlearen izena, hala ere, ez da arratsaldera arte jakingo. Antolatzaileek hamar urteotan euren produktuak ekarri dituzten baserritarrak omenduko dituzte aurten.

Baina ikusmin handiena pizten duena artisautza feria izaten da. Euskal Herri osoko ar-

tisauek lan egiteko modua zein euren produktuak erakusten dituzte egun osoan Altzate kalean. Bortzirietako produktuek ere toki bat izan dute azken urteotan.

Eguerdian, artisauek guztiak elkarrekin bazkaltzen dute antolatzaileek emandakoarekin. Arratsaldean, ikusle gehien biltzen den unean, taloak eta gaztainak ere jartzen dira salgai.

Kaleetan animaziorik ez da faltako egun osoan. Jendeak artisauek ikusteaz gain, Zangozako Rocamador dantza taldea ikusi ahal izango du. Musika Berako trikitilariak eta Zizkuitz txarangak jarriko dute, eta arratsaldean Gozategirekin dantzaldia izanen da. X

Leitza

Baserritarren Eguna ospatuko dute asteburuan

Igandean azoka eginen dute herriko kaleetan

Erredakzioa / Iruñea

AURRERA Elkartek eta Kultur Taldeak antolatuta, asteburu mamitsua izanen dute leitza ezberdinen artean, aurten laugarren urte ospatuko duten Baserritarren Eguna izanen da nagusi.

Baserritarren egunaren barruan, frutarbolei buruzko hitzaldi interesgarria eskainiko du gaur Aitor Etxandiak, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Udaletxeko aretoan. Bihar, berriz, arratsaldeko lau eta erdietan, igerilekuaren atzekaldean, artzain txakurren erakustaldia eginen dute, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Leitzaiko Maleta baserriko bi

anaiak eta Aresoko Alustiza anaia ariko dira euren txakurrekin.

Egun nagusia, baina, igandekoa izanen da, eta Berako Lurraren Egunean bezala, Leitzaiko baserritarren produktuekin osatu azoka eginen dute. Baratzeko produktuak, taloak, sagardoak, gaztainak eta beste ikusi eta erosi ahal izanen dira. Eguerdiko ordu batean, jokoak izanen dira, tartean zapoa eta txingurriarena. Ondoren, azokan parte hartuko duten baserritarrentzat bazkaria prestatu dute Torrea jatetxean. 40tik gora lagun bilduko dira bertan. Bertsolarien eta txarangaren kantuak eta doinuak ez dira faltako Leitzaiko giroa behar den bezala alaitzeko. X

Zizur Nagusia

Euskararen presentzia handitzeko ekimena jarri du abian Udalak

■ 'Zizur Nagusian euskara zure esku' kanpainaren barruan

Erredakzioa / Iruñea

ZIZUR NAGUSIKO Udalak, Siadeco enpresaren bitartez, Zizur Nagusian euskara zure esku izeneko kanpaina jarriko du abian, herriko elkarteetan eta eskola orduetatik kanpoko jardueretan euskararen presentzia bultzatu eta indartzeko asmoz.

Zizur Nagusiko Udala konaturatu da azken urteetan herriko eguneroko bizitzan euskararak gero eta presentzia handiagoa duela. Horregatik, kanpaina honen bidez, egoera zein den aztertu nahi du Herriko Etxeak. Azterketa egin ahal izateko, 50 elkarte eta erakunde inguru bisitatuko dituzte Siadeco enpresako kideek, besteak beste, haurtzaindegiak, ikastetxeak, akademiak, kultur eta kirol taldeak, eta beste asko.

Elkarte eta erakunde guztietara bi bisita eginen dituzte azterketaren arduradunek, eta bakoitzean zenbait urrats emanen dituzte. Lehenik eta behin, egitasmoa aurkeztu, datuak bildu, hitzarmenak eta Udalaren eskaintzak azaldu eta dauden beharrak eta oztopoak identifikatzea da helburua. Bigarrenik, berriz, elkarte bakoitzean euskara arduradun bat izendatu eta euskara bultzatzeko hitzarmenak sinatu. Datuak eta hitzarmenak jaso ondoren, Siadecok aurrera begira egin beharreko lanaren ardatzak zehaztuko ditu.

Hitzarmenei dagokionez, aipatzekoa da zenbait maila izanen direla: lehen hitzarmenaren funtsa da ageriko elementuetan euskara erabiltzea. Euskararen erabilpenarentzat barne nahiz kanpoko harreman bideak zabaltzea da bigarren hitzarmenaren mamia, eta barne nahiz kanpoko funtzionamendu nagusia euskarazkoa izatea hirugarrenaren. Hitzarmen hauen bidez, euskara ikastaroetan parte hartu edo itzulpen zerbitzua eskuratu ahal izanen dute elkarte eta erakundeetako kideek. Datuak bilduta eta hitzarmenak sinatuta, kanpainaren segimendua eginen dute arduradunek, abian jarritako egitasmoaren berri zehatza izateko.

Euskararen presentzia bultzatzeko kanpaina honen helburua orokorra bada ere, badiu ekimen honek bestelako xede batzuk ere. Esate baterako, irakaskuntzan euskararen alde egiten ari den lana bai elkarteetan bai eskola orduetatik kanpo egiten diren jardueren bidez sendotu nahi du Zizur Nagusiko Udalak. X

Donapaleuko frantziskotarren
Zabalik egitasmoa

Donapaleuko frantziskotarren
Zabalik egitasmoa

Fededun eta fedegabekoentzat Zabik

Sortu berri duten Zabalik elkartearen bidez, herritar ororentzat zabalditu bere ateak Donapaleuko Frantziskotarren Etxeak

Donapaleuko Frantziskotarren Etxeak bertara hurbildu nahi duen ororentzat zabalditu bere ateak. Eta ate horiek zabaltzeko, frantziskotarren asmo berri hartzeko, Zabalik elkartearen sortu dute komentuko lau fraileek eta beste hamar lagunek. Euren asmoa 50 urtez Donapaleura ikastera joan ziren haurrentzat ostatu izandako Frantziskotarren Etxeko denen etxe bihurtzea da. Frantziskotarrak eta Nafarroa Behereko herritarrek bildu dituen urteetako historian beste urrats bat.

Julen Arriola / Donapaleu

DONAPALEUKO Frantziskotarren komentuko klaustroan sarzean, egokiena urduritasuna eraikina inguratzen duten harresiaren bestaldean uztea da. Baina egin ez baduzu, lasai, ez kezkatu, bertan bizi diren lau fraileetarik edozeinek berehalako kenduko baitu zure estresa. Hiriko presak, fraileen «ongi etorri» leuna entzun bezain pronto ahaztu eta bazter utziko dituzu. Donejakue bidean, Orreagako pasabideko aurreko etapan, atea jotzen duen edonor hartzeko bokazioa duen eremu baketsua da Frantziskotarren Etxea, fraileek ez baitote komentu deltu nahi.

1992. urtera arte, 50 urtez izan dute ostaturia frantziskotarrek Donapaleun. Urte horretan, Zabalik elkartearen bitartez, ekimen berri bati eman zioten hasiera Frantziskotarren Etxean. Elkarte hau, Frantziskotarren Etxea fededun eta fedegabekoentzat zabalik izanen den atsedenerako etxe bihurtzeko sortu zen. «Gure xedea gure etxe inguruan dugun jendearentzat zabaltzea da», azaldu digu Donapaleun 20 urte daramatzan Joxe Iturriotz aitak. Horretarako, ostaturiko gelak eta komentuko beste hainbeste berri dituzte. 20 lagun hartzeko gai da egun Frantziskotarren Etxea. Halaber, kristau elkarteek, katekistek, laborariek, edadetuen taldeek, inguruko elkarteek eta abarrek erabil ditzaketen bilkura gelak ere baditu komentukoak.

«Hogei lagun baino gehiago har ditzakegu baina ez dugu nahi, lan gehiegi eragingo lukeelako hain talde handiak, eta gainera, bilatzen dugun pertsonen arteko harremana zailagoa izanen litzatekeelako», azpimarratu du Joxe Iturriotz. Frantziskotarren Etxeko lau fraileek eta beste hamar lagunek osatu Zabalik elkartearen arduratzen da proiektu berriaren kudeaketaz. «Ostatuak lan gehiegi eskatzen zuen», gogoratu du Legorretakoak. «Frantziskotarrek etxea itxi nahi zuten eta irtenbide bat bilatu behar genuen. Oraingoz, inor ez da berriro etxea itxiaz mintzatu», gaineratu du pozik.

Familiartean edo bakarrik aseteburu lasaiak igarotzeko aukera eskaintzen du Zabalik-ek, baita barnetegiak, ikasketak, bidaiak, jardunaldiak, bilerak eta beste egiteko ere, beti ere, Amikuzeko kantoiaren bizi den giro euskaldun eta atseginez gozatuz. Zabalik elkartearen bidez, halaber, hilean behineko fedea eta kulturari buruzko hitzaldietan edo formazio ikastaroetan parte hartu daiteke, besteak beste. Azkenekoak, Euskal Herriko Nekazari Elkar-



Zabalik elkartearen sortu dute frantziskotarrek beste hamar lagunekin.

BOB EDME

teak prestatu du Nafarroa Behereko nekazarientzat halako ziklo bat.

Euskaltzaleak eta aurrerakoak • Frantziskotarrek egun esku ardean dute proiektua Zabalik bada ere, Iparraldean aski ezagunak dira aurretik ere, batez ere eliza berritzeko teologien alde egin duten apustuagatik eta euren euskaltzaleasunagatik.

Historikoki, 1964ko Kontzilioko berritzaleekin egin dute bat, eta Akitaniako Frantziskotarrak

Zabalik egitasmoa abian jarri aurretik ere frantziskotarrak aski ezagunak ziren Iparralde osoan aurrerakoi eta euskaltzaleak izateagatik

(ordenaren barruan izen hau hartzen du Iparralde bere baitan duen erregioa) berritzatzaileak izan ziren zentzu honetan. Euren aldizkaria erreferentzi teologiko bilakatu zen. Ideologoak izan ziren bertan Donapaleuko frantziskotarrak. «San Frantzisko Xabierren izpiritua hierarkiaren aurkakoa izan da beti —azaldu digu Joxe Iturriotz—, kontzilioaren izpiritua eliza laikoetara zabaltzea zen, eta elkarrekin, eliza berria eraikitzeko urratsak eman, eliza pobre eta sinplea, baina ebangeloiari estuki lotua, ez irudi edo ospakizunen eliza».

«Euskal Herriari buruz —jarraitu du frantziskotarrak— guretzat oso garrantzitsua da herria, Jesusen haragitzea edo gorputzea erran nahi baitu». Konpromezu hau dela eta, lehen Gau Eskolaren sorreran parte hartu zuten frantziskotarrek, eta egun, komentuko bi mojek irakurmen ikastaroak egiten dituzte AEKn.

Donejakue bideko erromesak • 1938. urtean berriro zabalditu zutenetik, Donejakue bidea egiten duten erromesak hartzea izan da Frantziskotarren Etxeko jardueraren nagusietariko bat. Aurten, 450 erromes eman du bertan gaua, Orreagako pasabidea zeharkatu aurreko etapan.

Erromesen artean, denetarik aurki daitezke: flamenkoak batez ere, baita holandarrak, alemaniarak, suitzarak, britaniar nitiz, Danimarkatik etorritako batzuk, Ingalaterratik helduta-

Lehen gau eskolaren sorreran parte hartu zuten frantziskotarrek; eta egun ere komentuko bi frailek irakurmen ikastaroak egiten dituzte AEKn

koak, kanadiar baten bat eta kolonbiar bakarra. Oinez, bizikletaz, zaldiz, astoz edo gurdiz aldatzen dira.

«Denek ez dute fedea dutelako egiten —erran digu Joxe Iturriotz gure galderari erantzunez—. Gehienek euren burua hobeto ezagutzeko egiten dute. Badira ere kirola egiteagatik egiten dutenak. Abenturazaleak dira beste batzuk, eta badira ere asketismoagatik egiten dutenak, arrazoiaren bat dela eta sakrifikatuz».

Apazak, ohe bat eta bazkaria eskaini ezezik, euskaldunen herria daudela azaltzen saiatzen dira. «Etoritzen diren batzuk herria ezagutzen dute Euskal Herria esistitzen dela», azaldu digu Iturriotz, hamabi anai-arrebako familia bateko azkena. «Frantziako Estatuan eta atzerrian informazio eza izugarria dago, agian gehiago frantziar eta Parisiko herritarren artean. Batzuk, euskara esistitzen dela eza-

gutzen dute hemen, edo galdezten dituzte ea erdararen dialektoa den».

Atergabekoentzat ere • Aterberik gabe kalean bizi diren dramak Frantziako egunkarietako lehen orrialdeak betetzen duen unean, kontraesana da Frantziskotarren Etxean erromesak edo Iparralde ezagutu nahi duten turistak bakarrik hartzea. «Behartsuentzat ere badugu lekua. Konturatu gara —gainez gainez— erromes edo mojeengandik at egotea nahaiago dutela, eta gu ere, ez gara gehiegi ausartzen». Esperientziak erakutsi die, kasu hauetan zorroztzak izatea beharrezkoa dela ge-

Joxe Iturriotz:
«Gure xedea da gure etxe inguruan dugun jende guztiari zabaltzea, Frantziskotarren Etxea denon bilgune bihurtzea»



Gaur egun, lau frantziskotar bizi dira Donapaleuko komentuan.

BOB EDME

Frantziskotarrak eta Nafarroa Beherea, hainbat urtetako historia

DONAPALEUKO herritarren eta frantziskotarren arteko harremana aspaldikoa da, Joxe Iturriotz orain hamabi urte komentuko zaindaria denak erran digunez. Lehenengo frantziskotarrak joan den mendean iritsi ziren Donapaleura, gerrate karlistetik ihesi. Kurioski, ordena honen lehen kokalekua izan zen Donapaleu Frantziako Estatuan, eta bertatik alde egin zuen Areso aitak, Erromak aginduta, estatu osoan zehar beste hainbat komentu sortzeko asmoz. Jazarpenak zirela eta, askotan bidali zituzten bertatik —1903. urtean azken aldiz—, eta 1938. urtera arte ez ziren frantziskotarrak egun diren eralkinean betiko gelditu. Une horretatik bertatik eta 1992. urtera arte, inguruko herrietatik Do-

napaleura ikastera etortzen ziren haurrentzat ostaturia eta kantina izan ziren komentuko jardueraren nagusiak. Mintegira bidali aurretik, haurren bokazioa piztea zen bertako fraileen helburua.

Nahiz eta San Frantzisko Xabierrek sortu ordena Iparraldeko beste herritan ez ezarri, eta nahiz eta Donapaleun zortzi fraile baino gehiago ez egon inoiz, bertatik frantziskotar ezagunak ateratu dira, besteak beste, Xalbat Bellemur, Manex Erdozainzi-Etxart eta Santos Beloki euskaltzaleak, eta baita Bertrand Duclos ere, aurrerakoiak izateagatik ezaguna izan den ordenako probintziala.

Frantziskotarren ordena beste lekuetan ezartzeko esperientzia bakarrak Bellemur eta

Erdozainzik jarri zituzten abian, 1972. urteaz geroztik. Apez laborari izateko bokazioa izanik, Domintxineko (Zuberoa) etxe batean ezarri ziren komentuko egituratik kanpo bizitzaren frantziskotarra eramateko asmoz. Garai hartan teologia berrien bidetik Elizaren berrikuntza nahi zuten gazte askoren erreferentzia izan ziren hamar urtez.

Zabalik proiektu berriaren izpirituan, hain zuzen, Bellemur eta Erdozainziren esperientzia aldarrikatzen du Joxe Iturriotz aitak, hau da, «eralkinak duen komentu izatera alde batera utzi eta gure etxeko ateak zabalditu, jendeak frantziskotarren izpirituekin bat datortzen eliz izpiritua senti dezan hementxe bertan».

zuen. Altxatu egin ginen eta erran genion Donapaleu Iparraldeko etxe bakarra zela eta garrantzitsua zela etxea».

Iparraldea hobeto ezagutu • Joxe Iturriotz ez digu agur erran nahi Hegoaldeko euskaldunak Iparraldera etortzeko gonbidapena luzatu gabe. «Pastoralak ikusteko edo Herri Urratsera bakarrik etortzen dira abertzale kontzientzia lasatzeko,

Joxe Iturriotz:
«Pastoralak ikustera edo Herri Urratsera etortzen dira Hegoaldekoak Iparraldera, urtean behin, baina hori aldatu beharra dago»

helduz, Joxe Iturriotz mugako bi aldeetako frantziskotarrak bilduko dituen euskal probintzia aldarrikatzen du bere ordenaren baitan. Desagertzeko zorian egon zirenean, Donapaleu Hegoaldeko barrutiaren esku utzea zela konponbiderik egokiena erran zien Frantziako arduradunak, baina, harritzekoa bada ere, Hegoaldekoak izan ziren proposamen honi ezetz erran ziotenak. «Jende ona da, gehienak euskaldunak dira, probintziala euskaltzalea da —erran digu— baina hain bokazio gutxi zegoela erran ziguten, etxeak itxi beharrean zueldea eta egungo Kantabriako Probintzia Soria, Madril eta Santandereraino aldatzen zela. Erromak gure erabakia onartu izanen

urtean behin, baina horrekin bukatu beharra dago. Zuberoaren inguruan sortu den mistizismoa bertan behera utzi beharra dago, itotzen gaituen muga apurtu; Iparraldera normaltasun osoz etorri behar da, denbora gehiagorekin, errespetuz eta etxean utziz ikasitako moldeak. Hemengo jendea bizi den moduan bizi da, euren ohiturak dituzte, pentsatzeko beste modua dute, baina denok gara euskaldunak».

Xanti Begiristain

Nafarroa: «Harresirik gabeko etorkizuna. Nafarrok dugu hitza»

Elkarri gizarte mugimenduak dei publikoa egin zuen urriaren 22an, komunikabideetan, manifestaldi batera joateko azaroaren 9an. Agerraldi hori Iruñean egingo da aipatutako egunean, arratsaldeko bost eta erdietan.

Elkarri bere momentuan adierazi zion laguntza eta atxikimendua Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean sorturiko Lankidetzaz Hitzarmenari, uste zuelako hori izan zitekeela aurrerapauso bat harremanak normalizatzeko, eta Nafarroa eta EAEn arteko lurralde konfigurazio berria eraikitzeke. Hitzarmen horrek egin zezakeen mugimendu positibo bat, mugigaitzasunak blokeatzen eta menperatzen duen gatazkan.

Beranduago, PP eta UPNren jokabidea ikusita gai honi dagokionez, Elkarri kritikatu zuen azken hauen portaera, ozotopatzaila zelako. Haustura honek atzeraurrats suntsi-

bat, urtebetez prestatutakoan, eta UPNren Gobernuak, agintea hartu bezain azkar, hilabete eskas batean, pikotara bidali du, bere lehen-dabiziko ekintza politiko nabarmenean.

Badakigu Lankidetzaz Hitzarmena ez zela erabateko konponbidea EAE eta Nafarroaren arteko harremanentzat, baina hala ere, porrot horrek ez garamatza bakarrik abiapuntura baizik eta atzerago. Bide politikoen desprestigioa eta balio galtzea dakartza; normalizaziorako bidean enkistamendua, narriadura eta etsipena bultzatzen ditu.

Ondorioz, hauek dituzue kanpaina honen helburu nagusiak:

1. Nafarroa eta EAEn arteko harremanen gatazka bideratzeko gizarte-etzabaldia sustatzea, etorkizun eta ebazpen mentalitatearekin.
2. Elkarbizitzaren behar horretan, etzabaldia kontsentsurantz bideratzea.



tzaila dakar, ez du beste hautabide berririk eskaintzen. Hori ez da egokia, istilu politikoak bideratzeko eta elkarriketaren eta hitzarmenaren ideia bultzatu eta garatzeko. Iruñea eta Gasteizko legebiltzarren artean da. Are gehiago oraindik gogoan harturik horretarako baliatu direla EAE eta Nafarroaz kanpoko indar politiko kontserbadoreen interferentziak eta babesak. Honek guztiak balaztakada bat jarri die harremanei; iruzur onartezina da muinean eta eran, eta aldi berean aurrekari txarra etorkizunerako. «Nafarrekin dute hitza» premisa hain azpimarratua erdi-erditik moztu dute eta despotismo ilustratua praktikatu dute, hau da, «dena Nafarroarentzat baina nafarren iritzirik gabe».

Baina agian, honetan guztian, larriena izan liteke, zeinen arinkeria handiz jokatu duten suntsituz zegoen hitzarmen txiki hori, eta bitartean beste alternatibarik eskaini gabe. Nafarroako errealitate soziopolitiko konplexua ebatzi gabea autonomien Estatuan, 18 urte igaro ondoren aurkeztu zen aurrerapen txiki

3. Aurreko guztia eraldatzea, Nafarroako Gobernuaren gainean, gizarte-presio demokratiko eta zilegi bezala, etorkizunean, gai honi buruz, modu egokian baldintzatzeko.

4. Despotismoaren aurrean, kalean agertu kontsentsuaren aldeko sustengu handi eta anitza, etorkizunerako gida moduan.

5. Nafarroako gizarte eta politika-aniztasun nabariko agerpen eta manifestazioa egitea.

6. Kanpainaren bukaeran egoera hobean egotea, gaiari buruz lanean jarraitzeko, eta proposamen eta ekimen berriak aurkitzeko.

7. Nafarroan bereziki, Elkarriren bakearen aldeko eragile-paperari balio handiagoa ematea.

Ikusten denez, manifestazioaren aldeko mezu irekia, anitza eta integratzailea dugu.

Hortaz ba, azaroaren 5eko arratsaldean norberak ikusiko du ea laguntza eman nahi dien ideia hauei: «Nafarroa: harresirik gabeko etorkizuna», «Nafarrok dugu hitza», edota aldiz, ea jarraitu nahi dugun berdin, edo agian okerrago. ■

Klasiko bitxi • arrotz klasiko

Joxemiel Bidador

Jean Martin
Hiribarren eta bere
lan ahantziak

Aski ezaguna ote du zoko honetako ohizko irakurleak Hiribarren apez lapurtarraren aipua, baita 1853.eko abenduan eta Fore eta Lasserreren moldiztegiaren berak agertu *Euskaldunac: Iberia, Cantabria, Eskal-herriac, Eskal-herri bakhotcha eta hafi darratona* izenburuko idazkia ere, batik bat gogoan baldin badu haren eginiko edizio ugari, gure izan den bezalako urri batetarako sobera gaizki ez dagoena: aipatu estraneakoa, Añamendi argitaldarien eskutik atera zena, Hordago-Lur etxeak 1979.ean eginiko faksimila, eta berrikiago Euskal Editoreen Elkarteak akuilaturik Altunak eta abarrek aipaturikoa. Edozein modutan ere Hiribarrenek bazituen izkiriari beselakorik horren ezagunak egun gertatzen ez datezkenak, eta bereziki, argitara elki gabeko eskuidazkiez gainera —euskal gramatika, erre-frau bilduma, inperioaren historia, Birjinaren bizitza, hainbat prediku, eta abar—, segituan ekarriko ditugun *Montebideoko berriac* nahiz *Euskaraz eguia*.

Jean Martin Hiribarren azkaindarra Etxeberrinean genuen sorturik 1810.eko maiatzaren 8an. Amonaren aldetik Dutari sendi baztandarraren ondorengoa dugu. Ezagun denez, Dutaritara zen Xabierreko Frantzisko Jasoren ama. Aiko horretakoa ere bazen Geronimo Dutari Mendiburu Iruñeko josulagun ospetsua, aita Arizkungo Berroa garaikoa bazen ere. Eta Dutari zen Erratzuko Buzitiñagako Juan Lorenzo Irigoien, Iruñeko apezpikua XVIII. mendean. 1833.ean apeztu eta urte batez Urruñako bikario izan genuen, alabaina urte eskax eman zuen hartan eta Barozera lotuz, luze iraun zuen 1865.era arte, izan ere urte hartan Baionara joan baitzen kanonigo. Bertan hil zitzaigun heldu zen urteko azaroaren 26an, sagrario bat itxerakoan eria hanpaturik tetanoak jota. Garaiko euskal letra gizonekin hartu eman estua izan zuen, Chaorekin bereziki: «*Chao et Hiribarren representent, en linguistique la haute fantaisie, l'arbitraire, l'imaginaton en plein vol*» esanien zuen Lhandek geroxeago.

Montebideoko berriac. Ut omnes lucrifacerent guciac salbatu nahi, eguia khitratsa bahi. J.M.H. hasmenta hizkiez sinaturik, 1853.ean Baionako Orbe karrikan zegoen Foré eta Lasserreren moldiztegiaren. Aldez aitzinetik *Message de Bayonne* izeneko argitalpenean ageri zen 1853.eko maiatza hilabetearen. Suskriptoreen zerrendak ematen dio hasiera lanari, eta hartan, besteen artean, Abbadie, Arkanguesko markisa, Baionako Labat eta Barozeko Hirigoien auzapezak, Sarriako kontea, eta abarrek. Hamaika bertsoz osaturiko lana dugu euskaldunen emigrazioaren gainean: *Euskaldunac airean, enganatzailac, Euskal herritan indiac, itsasoco lehen, bigarren eta hiorugarren bestac, Montebideo, Euskalduna Montebideon soldadu, Euskaldun negocia Monmtbideon, Montebideco nescatchac, eta Euskaldunac Montebiden pagano.* Hamaika olerkietan barrena jarraiki bertso hilara berbera dugu: 7-6a, 7-6a, 7-6b, 7-6b.

Escaraz eguia. Baionako E. Lasserre apezpikutegitico liburu *egulea baithan*, 1858.ean, Haranburu bikario nagusia zenaren onesperekin. 159 orrialdetako 8.ko idazki honek, aurrekoak ez bezala, badu bere *Non-bilha*, oretzen diren gai funts sakonak kausigarri. Liburu osoa *trinitate sanduaz eta misterioez* aritzeko egina da, eta hortik ere badatorkio hiru zatitan banandurik egon izana, lehendabizikoa *Yinkoari*, bigarrena *Yesu-Christori* eta hirugarrena *Izpiritu saindiari* egokituak oroz bat. Hiribarrenek argi azaldu zuen atarikoan zuen asmoa: «*Mintzo naitz trinitate sainduaz ez arguitu nahiz misterioa; bainan adiratzeco eguia horrec ezduela deus adimendua asaldarazi behar duenic.* (...) *Ez liteke beraz espantagarri behar izatea sinhestean gauza ezin entelegatuac.* Lafittek —*Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*— «*Histoire des religions*» batetzat jo zuen honakoa, Villasanteri «*nombre excesivamente pomposo*» iruditzen zaion arren, baina edozein modutan ere, beste erligioei buruz datuak ematen ahalegintzen den lehendabiziko euskal liburuetakoa litzateke gurea, «*Bhrama, Vichnu, Siba, Budda, Confucius, Isis, Osiris, Hor, Lycurgue, Numa, Yupiter, Zoroaster, Luther, Calvin nahiz Mahomet*» jainkoen berri ematen baitu: «*Hainitz buru mota da lurrean: yakni guti, mintzari haintz, lerro ezin akhabatuac arthaldean, buruzaguac bakhan.*» ■



Nafarroako taldekako txapelketako maila nagusiko lehenengo partida, 1996ko urriaren 12an jokatu.

Oscar Lazkoz (Atarrabiako Paz de Ziganda), 1.845 ELOkoa — Manolo Redin (Iruñeko Alde Zaharra), 2.190 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,g6; 6.Ae3,Ag7; 7.f3,0-0; 8.Dd2, Zc6; 9.0-0-0,d5.

Beltzen maltzuratasuna, agerian. Amua jarrita, arrainaren zain.

10.d5,Zd5; 11.Zc6,c6; 12.Zd5,d5; 13.Dd5. Peoi baten truke, espazio zabalak irabazi di-

tuzte beltzek.


13....,Dc7; 14.Ab5,Af5; 15.Dc4,De5; 16.Db3,Ae6; 17.f4,Dc7; 18.Da4,a6; 19.Ad7,Db7.

Bi peoi mehatxupean, baina 'g2-koa' ez omen da goxoa.

20.b3,Ad5; 21.Eb1,e6. **Ikus koadroa.** Ederki moztu diote alfilar bidea. Horrek zurien konbinazioa egitera behartuko du, baina beltzak azkarragoak izanen dira.

22.Gd5,d5; 23.Ac6,De7; 24.Aa8,De3; 25.Ad5,Dc3.

Gaztelua harrapatuta zegoenez, zuriek etsi egin zuten. Joko irekia egitearen arriskua.



'Maisuen etxea' eztabaida iturri

Aresoko alkatea Guardia Zibilarekin agertu zen atzo goizeko bederatzietan gurasoak pisutik botatzeko

Aresoko alkatea deituta, herriko 'maisuen etxean' itxita zeuden Guraso Elkarteko kideak bertatik aterazera agertu zen Guardia Zibila epaile batekin, atzo goizeko bederatzietan. Ordu horretan, gaua bertan eman zuten lauzpabost gurasoak ziren barruan. Lerro hauek idazteko orduan, barruan jarraitzen zuten gurasoak, eta Guardia Zibila eraikineko atarian zen. Lekurik ez izatea da gurasoen protestaldiaren eragilea.

Edurne Elizondo / Areso

ARESOKO ALKATEA atzo goizeko bereatzietan Guardia Zibilarekin agertu zen arte, Guraso Elkarteko kideen bizitoki zen maisuen etxea deiturikoa hilaren 10az gozotik. Lerro hauek idazteko orduan, asteazken gaua bertan eman zuten lauzpabost gurasoak bertan ziren artea, baina Guardia Zibilak ez zion inori sartzen uzten. Tentsio uneak izan baziren ere —irainak, negarrak—, gurasoak aurrera jarraitzeko prest agertu ziren. Atzo arratsaldean biltzekoak ziren gurasoak, hemendik aurrera zer egin erabakitzeko asmoz. Udalarekin eta irakasleekin ere bilera egin nahi zuten gurasoak.

Maisuen etxean itxeko erabakia euren seme-alaben egoera salatze eta konponbidea eskatzeko hartu zuten Aresoko gurasoak. Aresoko ikastetxe publikoko arazoa ikasturte honen hasierarekin batera piztu zen herrian. Funtsean, haurrentzako lekuri ez izateak sortu du gurasoen haserrea.

Gaur egun, 27 ikasle daude Aresoko Ikastetxe Bateratuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko bigarren ikasturteko haurrak barne. Beraz, 3 urtetik 12 urtera bitarteko ikasleak dira Aresoko ikastetxe-koak. Iazko ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa Areson bukatu ahal izatea eskatu zuten Guraso Elkarteko kideak, baita lortu ere. Lehen zikloa amaituta, Leitzako ikastetxera joanen dira Aresoko ikasleak.

Hamabi urteko neska-mutilak Areson gelditu direnez, lehenagotik urria zen tokia benetako arazo bihurtu da herriko ikastetxean. Kontuan hartu behar da, haur hauek ezezik, astean zehar Aresora beste sei ikasle hurbiltzen direla. Trini Miranda Aresoko Gurasoen Elkarteko lehendakariak azpimarratu duenez, gainera, «sei haur berri sartu ziren iaz Haur Hezkuntzan, eta horrek ere arazoak sortu zituen».

Hori guztia dela eta, badira Aresoko ikastetxe hiru irakasleek eskaini ezin dituzten ikasgaiak, hala nola, psikomotrizitate, etika eta tailerrak. Musika eman ahal izateko, haurrek mahaiak atera behar dituzte ikasgelatik. Halaxe azpimarratu dute ikastetxe hiru tutorek eta

bost irakasle ibiltariak, Eskola Kontseiluak eskatuta egin txostenean.

Maisuen etxearen alde eta aurka • Arazo honi oso modu ezberdinean egin nahi diote aurre ikastetxe Guraso Elkartek eta Udalak. Gurasoek, erran bezala, maisuen etxea deituriko eraikina hartu dute, eta falta diren ikasgelak bertan jartzeko garbitzen eta prestatzen ari dira.


Maisuen etxea Udalarena da, baina, Nafarroako Gobernuak joan den otsalean erabaki zenez, «bere erabilerak eskolarekin egon behar du lotua, bertan egun dauden edo etorkizunean egon daitezkeen beharrei erantzuteko», jakinarazi digu Trini Mirandak.

Aresoko Udala, ordea, ez da pisua gurasoek emateko prest agertu, Martin Caballero herriko alkatea erran digunez. Udala, horren ordez, «eraikin berri bat



Aresoko Guraso Elkarteko kideak, maisuen etxea-ren aurrean.

OSKAR MONTERO



Maisuen etxea garbitzen eta konpontzen aritu dira gurasoak.

OSKAR MONTERO

egiteko prest» dago. «horren beharra baldin badago behintzat». Eta Caballero, hain zuzen, ez du behar hori hain garbi ikusten, «edozein modutan, urtebeteko arazoa baita». Baina herriko gurasoak ez dotoz bat alkatearekin, eta, eraikin berriaren aukera baztertzeko ez badute ere, «egin bitartean pisua erabili ahal izatea» aldarrikatzen dute.

Gurasoen Elkarteko lehendakariaren aburuz, Nafarroako Gobernuari dagokio Aresoko ikastetxe arazoa konpontzea, «Hezkuntza Sailari baitagokio haur guztien beharrei erantzutea». Hori dela eta, argi utzi nahi du Aresoko eskolako auzia ez dela gurasoen eta Udalaren arteko tirabira soil. «Arazoa Hezkuntza Sailarena da», nabarmendu du.

Orain artean, ordea, Nafarroako Gobernuak ez du arazo honi buruz inolako erabakirik hartu. Hezkuntza Saileko kide bat Areson egon zen, eta txostena egin zuen ikastetxeari buruz. «Leku falta benetako arazoa dela erran zuen, eta maisuen etxea erabiltzea komenigarria litzatekeela, baina Gobernuak ez du inolako agindurik eman».

Markotegiren erantzunaren zain

IKASTURTE hasieratik, seme-alaben arazoa konpondu arte borrokan jarraitzeko prest agertu dira Aresoko Guraso Elkarteko kideak. Maisuen etxea hartu eta apaintzen hastea izan zen lehen urratsa, hilaren 10ean eman zutena. Ondoren, hilaren 11n, Iruñera eraman zuten Aresoko gurasoek euren ke-xua, Hezkuntza Sailaren egoitzaren aurrera. Prentsaurrekoa eskaini eta protesta egin zuten bertan.

Baina orain bi asteak ez da Guraso Elkarteko kideek Iruñean egindako ekintza bakarra. Asteazkenean izan ziren Nafarroako hiriburuan azkeneko. Guraso Elkarteko kideek Javier Markotegi Kultura eta Hezkuntza Saileko kontseilariarekin elkarrizketa izan zuten, eguerdiko hamabi eta erdietan.

«Arazoa berea ez zela argi utzi zigun Javier Markotegik bileraren hasieran. Bukerako, baina, arazoa berea zela konturatu zela uste dugu». Guraso Elkarteko kideak baikor agertu dira bilera egin ondoren. Markotegiri Eskola Kontseiluak eskatuta Aresoko ikastetxe publikoko irakasleek egindako txostena erakutsi zitoten. Areson dauden leku arazo berri ematen zuten bertan.

«Markotegik arazoa aztertuko duela erran digu», azaldu digu Trini Mirandak. Irakasleen txostena ezezik, Hezkuntza Saileko inspektoreak egindakoa ere izanen du esku artean Kultura eta Hezkuntza kontseilariak. Markotegiren erantzuna gaur bertan jasotzea espero dute Aresoko gurasoek, «astelehenean jada normaltasuna berreskuratu ahal izateko». Baina kontseilariaren erantzuna datorren astean jasotzen ez badute, orain arteko mobilizazioekin jarraitzeko eta horiek erabiltzeko prest agertu dira Guraso Elkarteko kideak. «Ezin dugu gehiago itxaron. Gobernuak deus erabakitzen ez duen bitartean, gure seme-alabak dira kaltetu bakarrik», gogoratu du Trini Mirandak, Guraso Elkarteko lehendakariak. Guardia Zibila atzo agertu izanak ere ez ditu Aresoko gurasoen asmoak bertan behera utzi, eta Trini Mirandak atzo goizean Guardia Zibila maisuen etxeko atarian zegoela erran zigunez, «botatzen bagaituzte itzuli egingo gara».

Javier Markotegi kontseilariaren bitartez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren partehartzea ezezik, Arartekoaren eta Nafarroako Parlamentuko taldeen bitartekaritza ere eskatu dute Aresoko Guraso Elkarteko kideak. X

Trini Miranda: «Arazoa ez da gurasoen eta Udalaren arteko tirabira, Hezkuntza Sailari dagokio gure seme-alaben beharrak asetzera»

Martin Caballero: «Ez diegu 'maisuen etxea' emango. Beharrezkoa bada eraikin berria egiteko prest dago Udala»

«Helburuak ez dira bete»

J oan den astean, Leitzako Karrape Irratiaren etenaldiaren berri eman genuen orri honetan bertan, Anabel Alduntzin irratiko esatariari egindako elkarrizketaren bidez. Udalaren jarrera salatu zuen Alduntzinek. Herrian, ordea, iritzi ezberdinak daude auzi honen inguruan. Leitzako alkatearekin mintzatu gara, Udalaren jarrera eta iritzia zein den jakiteko asmoz.

Edurne Elizondo / Leitza

LEITZAKO Herriko Etxean hartu gaitu Mikel Ilarregik. Joan den astean Anabel Alduntzini egindako elkarrizketa du esku artean. Bertan erraten denarekin, baina, ez dago ados. Udalak irratia behin-behinekoz ixteko erabakia zergatik hartu duen azaldu eta Karraperen inguruan sortu diren arazoak berri eman digu.

■ **Zergatik erabaki duzue Karrape Irratia denboraldi batez ixtea?**

Argi eta garbi utzi nahi dut, lehenik eta behin, erabakia Udalak hartu duela. Halaber, mezu bat eman nahi diogu Udaletik herriari, hau da, etenaldi bat izanen dela, aztertzeko azken hiru urte hauetan eskaini dugun zerbitzu hau nolakoa izan den, eta aztertzeko nolako zerbitzua nahi dugun hemendik aurrera. Hitz batez erranda, proiektua berraztertu nahi dugu.

■ **Karrape Irratiak hiru urte hauetan izan dituen arazoei buruz mintzatzean, kontratazioarena aipatu izan duzue alde batetik, eta irratia beraren funtzionamendua besteetik. Horiek dira konpondu be-**



Leitzako alkatea da Mikel Ilarregi.
OSKAR MONTERO

harreko nagusiak?

Bai. Kontratazioari dagokionez, irratiko langileek hiru urteko kontratua zuten. Epe hori amaituta, edo langile finko bihurtzen dira edo kontratua amaitzen da. Guk etenaldia egin dugu uste dugulako irratia birformatu behar genuela. Orain, deialdi berria prestatu behar dugu, baina oraindik zehaztu gabe dago. Funtzionamenduari dagokionez, akats handiak izan dira. Adibidez, irratiko estatutuen arabera, irratiko langileek, Udaleko ordezkari batek eta euskara teknikariak osatu batzorde iraunkorrrak astero bildu behar zuten, eta azken urte eta erdian bi edo hiru aldiz bildu gara bakarrik. Halaber, sortu zenean Karrapek zi-

tuen helburuak ez dira bete. Irrati plurala, integratzailea nahi genuen, Udalak ere presentzia izanen zuen irratia, baina ez da hala gertatu. Orduz gero, irratia, ez dira bete hasierako asmoak. Gure asmoa lau orduko emanaldia egitea zen, baina hiru urtetan hiru ordua iritsi gara bakarrik. Itzaltzen ari zen Karrape Irratia.

■ **Plurala, integratzailea... Zer erran nahi du horrek? Nola lor daiteke?**

Udalaren irratia izanik, pentsatzen dugu Udalaren informazioa beharrezkoa dela. Guk proposatu genuen astero tarte bat edukitzea, alkatea, zinegotziren bat edo behar zena agertzeko, gai ezberdinak lantzeko. Programazio arruntaren barruan egonen litzateke tarte hori. Gero, integratzailea erraten dugunean, uste dugu irratia zabaldu behar dela, herriko talde edo elkartei tarte berezi bat eskainiz. Baina irratiko langileak hasieratik agertu ziren horren kontra. Nire ustez, Udalaren eskuetatik ihes egin du Ka-

rrape Irratiak.

■ **Zergatik gertatu da hori? Langileena da bakarrik errua edo Udalak ere badu erantzukizunik auzi horretan?**

Zalantzarik gabe, errua denena da. Baina euskara batzordetik ikusi dugu egoera asko zaildu dela, eta gure artean egon diren harremanak ez dira normalak izan. Ez da girorik sortu, harreman gutxi izan dugu eta izan duguna ez da ona izan. Gainera, zoritxarrez, gero eta okerragoa izan da. Proiektu bat genuen eta nik uste dut hobe egin genezakeela, denon artean borondaterik egonez gero behintzat. Gure aldetik, nik uste dut egon dela, baina halako hoztasunez eginda dena, oso zaila izan da borondate hori bideratzea.

■ **Orduan, Udalak kontrol handiagoa eduki behar zuela uste duzue?**

Bai, baina kontrola zentzu onean ulertuta, hau da, koordinazio bezala. Edozeinek proiektu batean inbertsio bat egiten due-

Orain dela urtebete Leitzako alkate izendatu aurretik, herriko Udaleko zinegotzi izan zen Mikel Ilarregi leitzarra. Denbora honetan bultzatu dituen gaien artean, tarte berezia du Karrape Irratiak. Onartu duenez, «lusio handiz ekin genion proiektua prestatzeari, nahiz eta hasieran uste bezala ez atera».

Mikel Ilarregi, baina, berriro hasteko prest da. Erran digunez, datorren astean Udaleko kideak deituko ditu bilera batera, Karrape Irratiaren itxialdia aztertu eta bide berriak jorratzeko.

Irrati edo Udaleko kontuak ezezik, baditu Mikel Ilarregik beste hainbat ere esku artean. Izan ere, Leitzako alkatea izateaz gain, UEMAko lehendakari ere bada joan den urteko urriaz geroztik. Elkarte horrek urtero egiten dituen jardunaldietan aukeratu zuten UEMAko buru.

nean, jakinaren gainean egon behar du, koordinazio lana egin, eta hori ez da gertatu hemen.

■ **Orain bi aste isildu zen Karrape Irratia, behin-behinekoz. Zer gertatuko da orain?**

Euskara batzordean ikusi genuen irratia ezin zuela horrela jarraitu. Irailaren hasieran udal batzarra egin genuen eta hor erabaki genuen irratia auzia mahai gainean utziko genuela, alderdi bakoitzak kontratazioaren arazoa, eta, oro har, zein irratia mota nahi zuten aztertzeke. Hori da lehen pausoa, egoera aztertu. Eta datorren astean bertan, bilera deituko ditut Udaleko kide guztiak. Gure asmoa da lehen baino lehen irratia martxan jartzea berriro, hasieran genituen helburu berberekin. Alderdi bakoitzak bere iritzia plazaratuko du eta hortik aurrera langileak kontratatzeke deialdi berria prestatzen hasiko gara. Ahalik eta azkarren zabaldu nahi dugu berriro, 1997. urteko hasieran izanen dela uste dugu. x

«Gure artean egon diren harremanak ez dira normalak izan. Ez da girorik sortu, eta egoera gero eta okerragoa zen»

P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO
•34•

GAUR
ZORION
(BETI BESTERENA)

Xabier Lete

